

EROSKI-K FINKATU DITU BERE BONU SENIOR BERMATUEN EMISIO BERRI BATEN BALDINTZA EKONOMIKOAK

- **% 5,750 an ezarri da bonuen interes tasa finkoa.**
- **Bonuak 500 milioi euroko zenbateko nominala du, eta 2031n iraungitzen da.**
- **Horretaz gainera, kooperatibak finantza hitzarmenak izenpetu ditu erakunde finantzarioekin.**
- **Konpainiak, aldi berean, Mendeko Obligazioen amortizazioa iragarri du, iraungi baino bi urte eta bi hilabete lehenago.**

Elorrio, 2025eko azaroaren 19a.– Balio Merkatuen Komisio Nazionalari gaur igorritako komunikazioaren ondoren, **EROSKI**k jakinarazten du finkatu dituela bere bonu senior bermatuen eskaintza berriaren baldintza ekonomikoak: 500 milioi euroko zenbateko nominala, % 5,750ko interes finkoarekin, eta iraungipena 2031n duena. Sei hilean behin ordainduko dira interesak.

Era berean, EROSKI finantza tresna berriak izenpetu ditu; besteak beste:

- 370 milioi euroko mailegu sindikatu bat, epemuga 2031n duena,
- 80 milioi euroko kreditu-lerro berri bat, epemuga 2031n duena.

Bonuen jaulkipenaren eta finantza-tresna berrien bidez lortutako funtsak honako hauetarako erabiliko dira:

- hasierako 2028ko epemuga zuten Mendeko Obligazioak aldeztetik aurretik amortizatzeko (209 milioi euro).
- 2029an epemuga duen %10⁵/₈-eko bonu senior bermatuen jaulkipena aldeztetik aurretik amortizatzeko,
- taldeak sinatutako beste mailegu batzuk itzultzeko,

- sortutako interesak, primak, komisiok eta lotutako gastuak ordaintzeko.

HEDABIDEENTZAKO DEIALDIA:

EROSKIk hedabideak deitu ditu **prentsaurreko batera: bihar izango da, azaroak 20, osteguna, 13:00etan**, Bulevar 30 aretoan (Gran Via 30, 13. solairua, Madril). Topaketan, operazioaren xehetasun guztiak emango dituzte **Rosa Carabel** EROSKI Taldeko CEOak eta **Josu Mugarra** Taldearen finantza arloko zuzendariak, eta kazetarien galderari erantzuniko diete.

Prentsaurrekoa streaming bidez emango dute Madrilera joan ezin diren hedabide guztientzat.

EROSKiri buruz

EROSKI banaketa talde liderretako bat da Espainia iparraldeko merkatuan –Galiziatik Balearretara–, %12,7ko merkatu kuotarekin; eta liderra da Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan eta Galizian; lidergoan da halaber Balearretan ere. 2024aren amaieran, 1.502 saltoki zituen bere sare komertzialean: besteak beste, supermerkatuak, hipermerkatuak, cash & carry-ak eta online supermerkatuak, baita gasolindegia, kirol dendak eta elikagaien arlokoak ez diren beste negozio batzuk ere. Horretaz gainera, 6,4 milioi Bezero Bazkide baino gehiago ditu, eta 27.600 lagunek baino gehiago osatzen dute langile taldea; horietatik 9.000, berriz, bazkide eta jabe dira.